

**Denboraren makina**  
Oscar sarien  
historia

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*

**Thesi**  
Udalatxi  
itzulia

ARGIA

# erdiko kaiera

kultura eta aisia

## *Ihes betea* Geure ibileren ispilu

### Anjel Lertxundi

(Orio, 1948).  
Irakaskuntzan,  
kazetaritzan nahiz  
gidoigintzan aritua da.  
Alta bada, idazlea dugu  
oroz gain. 1970ean  
argitaratu zuen lehen  
lana: *Hunik arrats artean*  
ipuin liburua. Literatura  
obra oparoa osatu du  
harrezkero. *Ihes betea*  
(Alberdania) nobela da  
bere azken emaria. *Otto  
Pette* nobela mugarría  
izan bazen euskal  
literaturan, *Ihes beteak*,  
denboraren poderioz,  
euskal literaturaren  
alorrean berealdiko  
sakona utziko duelakoa  
begitandu zaigu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

# «Biktimak izan gara euskaldunok, baina»

**ALEMANIA NAZIAREN** garaia da. Lehen Mundu Gerraren osteko zauriak artean sendatu gabe, Bigarren Mundu Gerraren atarian gaude. Lindemann familiako kideak dira Anjel Lertxundi idazlearen istorioko protagonistak. Protagonisten artean, berriz, Werner Lindemann gailentzen da. Hamazazpi urteko Werner gaztea Hitlerzalea da. Alemaniari nazioaren zerbitzuko gazte prestua, oldartsua eta sutsua, oroz gainetik *odola* eta *oborea* baloratzen dituen koadrila bateko partaidea.

Wernerrek baina, ustekabea, judua dela jakin du gurasoengatik: neguko gauak eguna nola, holaxe harrapatu du Werner judua dela jakiteak. Biziko bada, ihes egitea baino ez zaio gertzen Wernerri. Ihesa *Ihes bete*a bilakatu ko zaio: hau da, Alemaniatik Triestera doa, handik Parisera, ondoren Marseillara, eta azkenik Hendaiara. Bien bitartean, ihes fisikoaz gain, bere baitarako ihesa esperimendatuko du. Bere biziko heziketa osatuko du Wernerrek: sentimenduak eta emozioak biziberri beharko ditu, baita moral eta etika berri bat ere, biziko bada.

Bizitza berrian, ihes eginda ere, mugarik gabeko mundu batean imajinatzen dugu Werner. Hitlerzale ohia judu “berria” bilakatu da. Destinoaren indarraren menpeko gizaki otzanok mundutarrok.

“Bete egin nauen nobela da *Ihes bete*” esan zenuen berau kaleratu eta berehala. Hiruzpalu hilabete bete dira liburua munduratu zenuela. Harrerak bete al zaitu? Kazetarion elkarrizketek, kritikek edo iruzkinek? Edota lagun hurbilen iritziek...

Sistema literario ez-sanoa —desorekatua— bizi dugu. Ur tanta batek olatu baten antza hartzen du, eta olatu bati, berriz, ez ikusiarena egiten zaio. Siste-



# eta biktimak gara baita borrero ere»

ma horretan nago, horren partaide naiz neu ere, eta soportatu egiten dut. Idazle gehienek bezala, bestalde. Orduan, hobe duzu lagun, irakurle eta kritikarien esanak ez gehiegi sines- tea: oso onak direnean, badaezpada ere; eta txarrak badira, indar hartzeko... Aspalditik egiten ikasi nuena, bestalde.

Nobela hiru partetan eraikia da. Hara, nire iri- tzia, zirikatzailea agian: lehen partea –Alema- nia nazian gertatua, leku edo hiri zehazgabea izaki, ordea– hain da intentsua, hain da lortua, hain da borobila... Nago, gero... bigarrenak eta hirugarrenak ez ote duten lortzen lehen partearen ikaragarriko *enpatia*. Bat al zator pertzepzio honekin?

Lehendabiziko partea –irakurleak ondo ezagutzen duena– idatzi egin behar nuen gero beste biak garatuko banituen. Baina niri interesatzen zitzaizkidanak, beste biak dira, ezeza- gunak eta misteriotsuak niretzat, intuitzen nituenak baina existitzen ez zirenak. Esan nahi dut: lehendabiziko parte hori ezagutzen nuen nik nobela idazten hasi aurretik ere. Irakurleak ere bai, neurri batean. Beste biak, ez zituen inork ezagutzen, ezta neuk ere, idatzi ditudan arte. Hori da, nik dakidala, lite- ratura. Erants dezadan: lehendabiziko partean, ezagutzen dugunaren birkreazio bat dago. Beste bietan, kreazioa.

**Esaterako:** aldaketa “handiak” dira lehen parte- tik bigarrenean: Werner Lindemann protagonis- ta nagusiaren bizitzan –eta baitan– aldaketa horren ikaragarria izateak baldintzatu al du biga- rren partea eta hirugarrena? –Arestian *enpatia* aipatu dut eta akaso alderantziz izan beharko luke, bere egoera tragikoa dela medio–.

Ez, ez du baldintzatu, abiarazi baizik. Judua dela jakiteak jarri du motorra martxan. Baina zer motor klase? Komunista batek esan ziezai- okeen gizarte naziari: “barkatu, damu naiz, prest nago aldatzeko, heil Hitler!”, eta sistemak barka ziezaiokeen. Gertatu ziren horrelakoak. Baina judu batek? Edo homosexual batek? Hor ez

dago damu posiblerik. Judua zara: ezin duzu ezer egin; ez dizute barkatuko; egizu nahi duzu- na; jar zaitez, Sebastian bezala, belauniko, eta hala ere, alferrik. Ihes egin, ezkutatu –ihesa- ren aldaera bat– edo zeure buruaz beste egin –ihe- saren beste aldaera bat–. Gainerakoan, besteek hil egingo zaituzte, soberan baitzaude mun- duan. Ez, horrelako baten kolpea ezin da kon- tatu komunista damutu baten eboluzioa bezala. Zara. Nahi zenuke aldatu, nahi zenuke ihes egin, nahi zenuke damua erakutsi. Baina zara, zara. Judua zara..

Bigarren zatia Triesten girotu eta biziara duzu. Eszenategia eta ingurugiroa zehatzagoa da, alta bada, gertatzen dena kaotikoa da, ana- basa gehiago dago...

Trieste, edo haize fisiko eta historiko askoren bidegurutzeta. Hori islatu nahi nuen, eta poztan nau zuk horrela ikusi izanak.

Hirugarrena Paris, Marseilla eta Hen- daian girotua: lilura, erresistentzia eta ihesa ageri dira. Egiguzu parte bakoitza gauzatzeko “ipini behar izan duzunari” buruzko gogoeta, edota bakoitzak eman dizuna hurrenez hurren:

Alemania nazian: dokumentazioa.

Triesten: Berriak eskatuta bertan egon eta hartaz idatzi nuen liburuaren oihartzun orain- dik ere oso bizi berria.

Paris, Marseilla eta Hendaian: aspaldian ezagutzen ditudan eszenategiak, aspalditik neure eginak.

Hiru eszenatoki Werner juduaren metamorfo- sian. Heziketa sentimentalar buruzko nobela ondu duzu, baina oso muturreko egoera batean: ideologia indartsu den garai batean. Ideologiaren gainean pertsonen arteko harre- manek seinatzen digute bidea. Hau da, per- sonek eta zirkunstantziek, eta aldiari aldiko beharrek ideologiek baino gehiago eragiten dute gure baitan, antza.

Muturreko egoeretan eta ez hain muturre- koetan. Marxista edo iraultzailea edo neo-

“Sistema literario ez-sanoa  
–desorekatua– bizi dugu.  
Ur tanta batek olatu baten  
antza hartzen du, eta olatu  
bati, berriz, ez ikusiarena  
egiten zaio”

## “Indarkeriaren kontra egon naiz beti, ez arrazoi moralengatik bakarrik, baita politikoengatik ere”

**Pausoka produkzio-etxeko hainbat ekoizpenen egilea zaitugu, batzuetan kredituetan Mario Esnal ezizenez agertzen dena. Bilbora zoaz astelehen oro. Zer eman dizu ETBrako lanak zure ibilbidean? Kendu zer edo zer?**

Ogibidea eman dit. Denbora erosteko aukera. Kendu? Esperientzia guztiek, esku batekin emandakoa kentzen dizute bestearekin, baina, balantzea egiten hasita, gehiago eman dit –besteak beste, literaturari denbora asko eskaintzeko aukera– kendu baino.

**Berrian idazten duzu. Zure belaunaldiko idazle emankorrena zara, aktualitate politikoaz eta sozialaz iritzia ematen duzu egunero. Garai batean gure intelektualen artean eta euskal auziarekiko “ekidistante” epitetoa jasandakoa agian. Egun**

com bat izaten hasi aurretik, eta bidean, eta gero, harremanak daude: norbaitek ordu arte ezagutzen ez zenuen zerbait erakusten dizu. Norbait hori duzu makulu. Harreman pertsonalen sareak garamatza bizitzan aurrera, gutxi aipatzen da harremanek duten zerikusia bizitzan aurrera ehuntzen dugun bide-jantzi ideologikoan. Eta nik hori kontatu nahi nuen. Werner eta bidean ezagutzen dituenak: horra nire Werner. Bidean beste lagun batzuk ezagutu izan balitu, beste Werner bat izango zen –adibidez, botiken trafikantea, Graham Greenen nobela hartan bezala– eta nobela ere beste bat izango zen.

Kontatu duzun istorioa, giza historia berealdiko gertakari eta mugarrigaraian eraiki duzu. Bi Mundu Gerraren artean kokatua, Espainiako 1936ko gerra zibila tartekoa delarik. Esana duzu hobeto ezagutzen duzula Alemania nazien historia eta juduen historia, Espainiakoa bera baino. Hori zure kasua da, edo oro har guztion kasua ote da? Gure gabeziatzat hartu behar al dugu?

Historikoki, hobeto ezagutzen dut Espainiako gerra. Baina iruditeriari dagokionez, errazago irudikatzen dut Alemania naziko historia. Badakizu, nobelak, pelikulak... Ez, gure lehenaren memoria ez da dokumentu historikoekin bakarrik osatzen. Dena dela eta oro har, zein negargarria zein gutxi dakigun Espainiako gerraz!

**berri iritzi email e puntakoa zaitugu. Ekidistantziari buruzko gogoeta...**

Madrilgo Barajasko aireportuko bi hilketak eta Iñaki de Juanaren kontrako mendekua salatu ditut. Bi-biak.

Hori esatea, eta posizio horretan egotea ekidistantzia bada, bada dei diezadatela ekidistante. Ez, ez zait ezkerreko jarrera iruditzen justiziaren izenean injustizia praktikatzea eta etxerako on omen denari injustizia ez deitzea.

Indarkeriaren kontra egon naiz beti, ez arrazoi moralengatik bakarrik. Baita politikoengatik ere: ikusi besterik ez dago zer nolako ondorioak ekarri dizkigun. Zertarako hainbeste sufrimendu, galdera erraza da. Eta erantzuna, mingarria. Bego, ez dut ozpin gehiago bota nahi zaurira, baina harrokeria gehiegi ikusten ari naiz berez guztizko porrota dena estali nahian.



**Horren atzean hurbilagoko geure historiaren memoriarekiko ditugun ezbaia, lotsa, ahalkea ote dira agian? Finean edo funtsean denok dugu hutsunea ote?**

Gure gurasoek ez zuten gerraz hitz egin nahi. Ez irabazleek, ez galtzaileek. Isildu egin ziren. Zergatik? Denetarik egongo da. Baina bizi nahi zutelako ere izango da... Aurrera egiteko eta aurrera zuzen egiteko balio behar digu memoriak, ez paralizatzeko. Horregatik, memoriak baditu mekanismoak arrazoiak ulertu ez arren, psikologiak abiarazten dituenak.

**“Urrutiko ispiluek ere ematen dute zer begiraturik, eta uste dut nire oraingo nobelan aurki daitekeela, neurri batean gertatzen zaigun hainbat konturen ispilu-lan hori”**

**Zure literatura formakuntzan idazle judutarrek berebiziko lekua dute, antza. Azaldu iezaguzu alderdi hori.**

Bo, nik uste gaur idazle den ororen formazioan dutela garrantzia. Oi, hogeigarren mendeko literatura, bertako manualetatik idazle juduak kenduko bagenu! Gero, badago beste kontu bat, eta nik neure baitara bilduz aitortu behar dudana: niri sarritan hain pisua egiten zaidan eta hain omnipresente daukadana: “kontzientzia judu-kristaua” deitzen diote, baina, besterik gabe, “kristaua” da. Beste puska ideologiko guztiek baino pisu eta garrantzi handiagoa izan du nire bidaia pertsonalean, eta egingo nuke halaxe dela nire belaunaldian ere. Nire sotoetan daramadan karga hori ezin dute mila garabik ere arindu, baina horri ahalik sanoen begiratu behar zaizkion nago. Nik, zorionez, literatura izan dut bidaide, eta bidaia horretan literatur juduak beste perspektiba bat eman dio nire sotoetako

## “Jon Alonsorenari ezer kendu gabe ere, nago ezker abertzalearen itzala dezentez ere luzeagoa dela administrazioarena baino”

**Internet zer da zu bezalako idazle batentzat? Zure bizitzan?** Idazlea naizen aldetik, informazioa eta dokumentazioa lortzeko eta barreiatzeko tramankulu paregabea. Idazle euskalduna naizen aldetik, euskararen zortzigarren probintzia bilakatu behar dugu Internet.

**Jon Alonsok ARGIAko Urtekarian Euskadi Literatura Sariaz idatzi du. Nola bizi dituzu euskal literaturaren mundua eta barne gorabeherak...**

Hasieran ere esan dizudan bezala, sistema literario ez-sanoa –desorekatua– bizi dugu. Ur tanta batek olatu baten antza hartzen du, eta olatu bati, berriz, ez ikusiarena egiten zaio. Zabalzaile batek, autore

batek, sari batek, feria batek atentzioaren arreta-gune osoa beregana dezake denbora luzean, eta gainerako guztia estali. Benetako debate baten premian gaude eta, Jon Alonsorenari

ezer kendu gabe ere, nago ezker abertzalearen itzala dezentez ere luzeagoa dela –eta emankor sibilinoagoa– administrazioarena baino. Meritu propioz eta lan asko egin ondoren, ez dut ukatuko, baina horretaz ere hitz egin beharko genuke.

**EI Eri buruz eta zehazkiago iaz izan ziren ika-mikez baduzu iritzirik?**

Ez nuen oso hurbiletik jarraitu –nobelarekin ari nintzen bete-betean–. Zerbait desatseginaren oroitzapena gelditu zait, baina ezin dizut iritzi zehatzik eman.



kargari: besteak beste, naizenerari etekin literarioak ateratzen erakutsi dit.

**Antza denez, judutar literatura ondo ezagutzen duzu, gure artean zein neurrian eta moduan ezagutzen da berau?** Ez dakit, baina uste dut literaturaz arduratzen denak baduela nik adina berri.

**Juduekiko –juduen errealitatearekiko– afektua modu batekoa zen Holokaustoaren ostean, eurekiko bazegoen *empatia* moduko bat, nolabait, gaur egun aldatu ote den nago. Palestina-rekiko gatazka tarteko, besteak beste. Nola bizi duzu hori? Edo eragina al du zuregan?**

Uste dut zuk diozun *empatia* hori ez dela galdu. Gaurko Israelen gorabehera, hori beste auzi bat da. Nerabezaroan, euskaltzaletasunaren eta herrigintza deitzen zen haren lehen pausok ematen ari nintzela, sektore batzuetan

Israel jartzen zen eredu gisa. Kibutzak! Israelen aurrera egiteko kuraia! Gaur, hori galdu da. Biktima ez dago txertatuta borrero izatetik, hori da ikasbidea. Biktimak izan gara eta biktimak gara euskaldunok, baina baita borrero ere, ez gaude borrero izatetik txertaturik. Eta euskaldunen kausak ere ezagutu du, *mutatis mutandis*, Israelgoaren antzeko deskreditua.

**Zein neurrian baldintzatzen du hurkoaren errealitatearen ezagutzeak gurea ezagutzeko orduan?**

Literaturak horixe du ziztagarri: besteen ibileren ispilu lana egiten dutela. Ez da zeregin moral soil. Estetikoa da, batez ere. Eta estetiko delako bihurtzen da, halaber, morala.

**Gaur egungo gazte euskaldun abertzale ezker-tiar baten –ortodoxoetan ortodoxoena– hezike-**

**gure!  
arteak!  
euskaraz**



## Inazio Mujika Iraola, *Ihes betea* eleberriaren editorea Ubera zahar, jauzi berri



Hogei urte inguru da Anjel Lertxundiren "liburu"rik ez dudala irakurtzen; ia hogei urteotan folioetan irakurri baititut Anjelen lanak —eta saila dira— argitara eman aurretik.

Uste izateko denaren kontra, beharbada, ez naiz ni egokiena epai bat emateko kritikariari egotzi ohi zaion hoztasunaren talaiatik. Badut, ordea, bestek ez duen heldulekurik haren laneginari heltzeko. Badut liburu horietako bakoitzaren aurreko kezken, hasi-masien, ibilbideen eta atzera-aurreen berri, eta prozesu horietako bakoitza izan da niretzat literatur ikastaro oparoa. Izan ere, aurki datoz hogei urte bete zituela idazkuntzan, eta eskarmenturik ez zaio falta.

Ez naiz ni egokiena esateko *Ihes betea* ote den orain arte idatzi duen libururik hoberena, horrelakorik zergatik erabaki behar den ere ez dakit, baina dakidana da ubera

zaharrear ari den izurdea bada ere Lertxundi, jauzi berria egin nahi izan duela hemen ere. Hor daude bere kezka estetiko eta moralak. Betikoak bai, bestela azalduak ere bai, ordea; berak maiz erabiltzen duen metaforaz esateko, "kontatu nahi denari luze-laburrean bere neurriko janzkera doia eman nahi" izan dio beste behin ere. Horrek ez du inola ere esan nahi zailago bihurtu zaigunik. Koska bat estuago —hori ere gustuko metafora du—, kasu honetan, soilago —errazago esatea arriskutsua iruditzen zait— esan nahi du, kontakizunago, berez eramaten zaituen ibai.

Eta poztu nau elkarrizketa honetan irakurri diodanean "urritiko ispiluek ere ematen dutela zer begiraturik", eta uste duela "nire oraingo nobelan aurki daitekeela, neurri batean, gertatzen zaigun hainbat konturen ispilu-lan hori". Zeren Anjel joan daiteke *Otto Petteren* garai zehaztugabe antzinako hartara edo joan daiteke Euskal Herritik urrun Alemania nazira, Tristera edo Frantzia okupatura, nahi duen lekura joan daiteke, baina Zarauzko kaleetan zorian perfektuaren bila jartzen denean bezala ari zaigu gutaz, edo ez bakarrik gutaz, baina gutaz batez ere.

ta sentimentalaren inguruko nobela bat idatzi beharko bazenu, zein litzateke desafio handiena? Erakartzen al zaitu gaiak?

Ez dago, berez, erakarmenik gabeko gairik. Ikuspuntua da interesatzen zaidana. Gaiak ertz asko dituen ala ez. Kontrasterako aukerak. Etekin formalak ateratzeko gai izango naizen. Horiek guztiak garbi ikusitakoan erantzungo dizut. Bitartean, ez, gaiak ez nau erakartzen: begirada hurbilegiak, gehiegi fokalizatzen du ikusitakoa. Begirada urrunegiak, lausotu. Nolanahi ere, urrutiko ispiluek ere ematen dute zer begiraturik, eta uste dut nire oraingo nobelan aurki daitekeela, neurri batean, gertatzen zaigun hainbat konturen ispilu-lan hori.

Alemanian eta Japonian *odola* eta *ohorea* oso hurbil dira. Gurean zertan daude bi alde horiek?

Alemanian baino, Alemania nazian esango nuke. Eta Alemania nazian eta samuraien Japonian *odola* eta *ohorea* hurbil egote hori ez da berdina. Inprobisatzen ari naiz, baina Mishimaren harakirian dagoen heriotzaren erritualizazioak ez du zeri-kusirik ez nazien heriotzarako deiaren utilitarismo belizistarekin, ezta gerra galdu ondoko suizidio ugarien ihesarekin ere.

Euskaldunoi dagokigunez, katolikotasunak zorrotz hezi gaitu: zorionekoak otzanak, eta abar.

Werner eta bere aitaren arteko harremana intentsua da, gazte baten heziketa sentimentalean aita eta seme-alabaren arteko harremanak markatzen du pertsonaren izaera. Psikologiaren esparruan beti ere, Werner-rrek bere aita "akabatu" beharra dauka. Baina bestela ere, Hitlerren aginduz, demagun, —zirkunstantzien ondorioa ere bagara— "akabatu" lezake aita.

Bai, eta Wernerren burutik garbi pasatzen da aita fisikoki akabatzeko aukera hori. Sinbolikoki akabatzearena, berriz, oso presente dago nobelan zehar: aitak apenas du hitzik. Aitarena isildutako presentzia da.

"Gure gurasoek ez zuten gerraz hitz egin nahi. Ez irabazleek, ez galtzaileek.

Isildu egin ziren. Zergatik?

Denetarik egongo da.

Baina bizi nahi zutelako

ere izango da..."

Judu izatea baina shock bat da Wernerrentzat. Zenbat shock behar dugu pertsonok garenaz jabetzeko? Shock edo eskarmentua, gure bizitzaren eta izaera osatzeko funtsezkoak dira, antza.

Horra memoria. Oroitu egiten dugu egin duguna eta egin digutena. Memoria, bai. Beti gogoratzen dut Patrick Modianoaren Familiako liburua nobelako bukaera: "Besotetan neraman alabatoa. Lo zegoen, bere burua nire sorbaldan atsedendurik. Deusek ere ez zion loa galarazten. Ez zuen, artean, memoriarik". Alabatxoa, besotetan. Eta lo. Mundu ondo eginaren babesa eskaintzen dio aitaren sorbaldak. Ez du oraindik mundua ordenatzeko —eta, ordenatzerakoan, aukerak egin eta sufritzeko— beharrik, ez baitu oraindik memoriarik. ■